

## **2026KO SAN MIGELAK: KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK**

1. Lehiaketaren xedea da, 2026an Irurako San Migel jaiak iragarriko dituen liburuxkaren azala eta kartelak irudikatzeko erabiliko den kartela aukeratzea.
2. Parte-hartzaileak, Iruran erroldatutako artista afizionatuak eta profesionalak izan daitezke. Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu.
3. Lanen ezaugarriak eta aurkezpena:
  - Irurako San Migelak 2026, izango da kartel guztietan azalduko den testua.
  - Tamaina: kartelak neurri bertikalean aurkeztu beharko dira eta 50x70 zentimetroko proportzioa izango dute.
  - Kolorea eta teknika aukerakoa: Kartela formatu digitalean ere aurkeztu behar da irudi bektoriala duen artxibo batean. Artxiboaren gutxieneko erresoluzioa 300ppp-koa izango da eta gehienez 5MG izango ditu.
  - Testuak: erabilitako tamainak zein tipografiak ongi irakurtzea erraztu behar dute.
  - Lan originalak: Aurkezten diren lanak, originalak izatea nahi da (eta ez beste inon aurkeztutakoak edo beste batzuen kopia edo imitazioa, baizik eta egilearen asmamenaren emaitza, IA adimen artifizialaren erabilera alde batera utzita) eta argitaragabeak.
  - Irudien ezaugarriak: Generoaren irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez. Genero berdintasuna ikusarazi edo sustatzen duten irudiak positiboki baloratuko dira.
  - Aurkezteko epea: 2026ko ekainaren 4tik uztailaren 5eko 12ak baino lehen.
  - Aurkezteko lekua eta modua: Kartelak fitxategi digitalean aurkeztu beharko dira, Irurako Udalak bere webgunean ([www.irura.eus](http://www.irura.eus)) horretarako prestatutako galdetegiaren bidez. Galdetegian, kartel bakoitzari kode sekretu bat esleitu beharko zaio, eta kode hori izango da epai-mahaiak erabiliko duen identifikatzailea, egilearen anonimotasuna bermatzeko. Horrez gain, zinpeko aitortpena egin beharko da, kartela bere egilezkoa dela eta adimen artifizialak sortua ez dela adierazteko.
  - Fitxategiaren izenean lema bakarrik azaldu behar da.
4. Hautaketa-prozesua eta epai-mahaiaren osaera: Epai-mahaia kultura mahaiko kideak eta honek aukeratutako aholkulari adituak osatuko dute, 2026ko uztailaren 13a baino lehen emango du ebazpena eta berak erabakitakoa apelaezina izango da. Epaimahaiko kideak ez dute lehiaketan parte hartuko.
5. Saria eman gabe gera daiteke: epai-mahaiak irizten badu aurkeztutako lanek ez dutela gutxieneko kalitaterik.
6. Saritutako lanak: Kultur mahaiaren esku geldituko dira eta, argitaratzeko, ezagutarazteko eta abarretarako eskubide guztiak bereak izango ditu.
7. Saria: 200 euroko sari bakarra izango da kartel irabazlearen jabearentzat.
8. Oinarriak onartzea: Lehiaketara aurkezte soilak, oinarri hauek goitik behera onartzea dakar eta bertan agertzen ez diren balizko arazoan aurrean kultur mahaiak erabakiko du.